



IRUTXULO KO HITZ

ra zer den gure donost

# Gipuzkoako Artisten Elkarteak 75 urte

Artista handien zein txikien etxea da Gipuzkoako Artisten Elkartea 1949tik, eta Donostian 75 urteko ibilbidea egin ostean, bizi-bizirik darrai, artistei formakuntzarako espazio bat eta elkargune bat eskainiz.

# 75 urtez artisten elkargune eta sustatzaile

Gipuzkoako Artisten Elkartea bere 75. urteurrena ospatzen ari da. Donostian egin du bere ibilbide guztia elkarteak, eta Gipuzkoako artista ezagun zein ezezagun asko eta asko pasatu dira handik. Herrialdeko artearen panoraman eragin zuzena izan du urteotan guztiotan, eta gorabeherak izan baditu ere, hasierako helburuarekin funtzionatzen jarraitzen du: arte ederrak sustatzea, horien inguruko formakuntza eskaintzea eta askotariko artisten elkargune izatea.

T\_Beñat Parra Rodriguez

A\_Joseba Parron San Sebastian

**A**ldapetako aldapa igo, eta Summa ikastetxea pasatuta, eskuinetara dago Gipuzkoako Artisten Elkartea. Atea gurutzatu, eskailerak jaitsi, eta jazz musika entzuten da, Sofia Arostegi Parra elkarteko presidentea (Ategorrieta, 1960) eta Lourdes Mora Olea zuzendaritzako kidea (Intxaurren, 1958) azaldu digutenez, une horretan pintura klasea ematen ari den irakasleari jazz erritmora lan egitea gustatzen zaiolako. Espazioa ez da txikia, baina txiki gelditzen ari zaie, egin diguten bisita gidatu inprobisatuan agerian gelditu denez: begiratzen duzun tokira begiratuta ere, koadroak, eskulturak, zeramikazko piezak, grabatuak eta bestelako lanak ikusten dira, lan egiteko ez ezik, obrak gordetzeko espazioa ere bada eta.

Grabatua lantzeko gela —elkarteak bezain beste urte izango dituen torkulu handi bat duena—; astoz, koadroz eta pintura usainez beteta dagoen margoketa gela eta elkarteko hainbat bazkideren lanek osatutako erakusketa txikia ere erakutsi dizkigute. Artea arnasten da elkartean, eta ez da gutxiagorako, 75 urte bete baititu. 75 urte artistei lan egiteko, formakuntzarako eta elkartzeko espazio bat eskaintzen, artea sustatzen eta kultur panorama elikatzen. Jazzaren bolumena pixka bat jaitsi, eta, orain bai, elkarriketa abiatu dugu.

## Frankismo bete-beteen sortua

Gipuzkoako Artisten Elkartea 1949an sortu zen, Arostegik azaldu zuenez, «hainbat intelektualek» elkartzeko beharra ikusi zutelako: «Bereziki artistak ziren elkartearen sorreran egon zirenak, baina baita bestelako arloetako intelektualak ere; beharra ikusi zuten Gipuzkoako abangoardia artistikoa bilduko zuen erakunde bat sortzeko. Hasi ziren Gipuzkoako artista guztiei deitzen, eta gehien-gehie-



Sofia Arostegi Parra elkarteko presidentea eta Lourdes Mora Olea zuzendaritzako kidea, elkartean.



Gipuzkoako Artisten Elkarteko hainbat kide, margoketa klasean.

nek elkartearekin bat egin zuten hasieratik. Elkartune bat zen elkartea, eta egitasmoak antolatzen hasi ziren segituan, hala nola, hitzaldiak eta lehenengo arte azoka, Trinitate plazan egin zutena».

Ricardo Baroja margolaria izan zen elkarteko lehenengo presidentea, eta elkartearen 75. urteurrenaren harira ondu duten dokumentalean Juan Antonio Garcia Marcos idazleak azaldu duenez, beste hainbat pertsona ezagun pasatu ziren kargu horretatik XX. mendean: «Agustin Ansa, Antonio Laso, Carlos Sanz, Amable Arias, Ruiz Balerdi eta Manuel Jose Garcia Pascual, besteak beste».

Elkartea jaio eta berehala, hainbat artista elkartearen jarduna eta arte panorama bera modernizatzeko lanetan hasi ziren, Arostegik kontatu duenez: «Jose Antonio Sistiaga eta Esther Ferrer, adibidez, panorama modernizatu nahian zebiltzan, eta segituan sartu zuten elkartearen modelo biluziak

margotzeko idea, Parisko akademia handietan egiten zen moduan. Hori gaur egunera arte mantendu dugu, eta gure inguruan aukera hori eskaintzen duen espazio bakanetakoa gara».

Hain zuzen ere, Ricardo Ugarte artistak dokumentalean nabarmendu du elkarteak eskaintzen zuen formakuntzak garrantzi handia izan zuela garai hartako artistentzat: «Formakuntza lan handia egiten zen elkartearen, bereziki, Ascensio Martiarenaren eta Jesus Gallegoren eskutik, eta baita Bixori Sanzen eskutik ere». Sarritan, modelo xeble bat izaten zutela dio Ugartek, baita ere: «Txantxillo [Santiago Hernandez Redondo] modelo gisa egon ohi zen, eta batzuetan lo hartzen zuen modelo gisa zegoen bitartean».

Bestalde, garaiko zentsura ere gogoratu du Ugartek, dioenez, modelo biluziekin egiten zituzten margoketa saioak «klandestinitatean eta nahiko diskrezioz» egiten zituzten,



diruz lagundu zituen elkartetik gertu zegoen elkartegastro-  
nomiko bateko lanak. Horren aurrean, prentsaurreko bat  
antolatu zuten, eta elkarte gastronomikoetan egiten den  
moduan, ekintza poetiko gisa, kazetarien aurrean txuleta  
bat jatekoak ziren Zumeta, Sistiaga eta Ruiz Balerdi. Azke-  
nean, ordea, Sistiagak baino ez zuen jan, eta besteek protes-  
taren nondik norakoak azaldu zituzten ondoren prentsaus-  
rrekora bertaratutakoei.

#### Elkartearen papera

Bitxikeria guztien gainera, bereziki nabarmendu behar da  
Gipuzkoako Artisten Elkartek garrantzi eta eragin handia  
izan zuela XX. mendeko euskal artearen berpizkunde har-  
tan. «Denok ezagutzen ditugun artista handi horiek eginda-  
ko gauza asko egin zituzten elkartek ematen zirelako elkar-  
tzeko espazio bat. Elkartze horretatik bururatu zitzaion Sis-  
tiagari Gaur taldea sortu behar zutela; hemen elkartzen  
zirelako sortu zen mugimendu hori», azaldu du Arostegik.  
Ildo beretik jo du Ugartek dokumentalean: «Nahiko gaztea  
nintzen orduan, eta askotariko artistekin harremana izate-  
ko balio izan zidan elkartek; adiskidetasun giro handia ze-  
goen».

Modelo xeble bat izaten  
zutela dio Ugartek: «Txantxillo  
egon ohi zen, eta batzuetan lo  
hartzan zuen»

Gipuzkoako Artisten Elkartek  
garrantzi eta eragin handia izan  
zuen XX. mendeko euskal artearen  
berpizkunde hartan

«gortinak eta bionboak» jarriz, kanpoko inork jakin ez zezan  
bertan hori egiten ari zirela, «gotzainak elkarte itxi zezake-  
elako bestela». Horrekin lotutako beste bitxikeria bat ere  
kontatu du artistak dokumentalean: «Hitzaldiak antolatzen  
genituenean, baimena eskatu behar genuen eta esango ge-  
nuen guztia jasotzen zuen testua bidali behar genuen Go-  
bernu Zibilera. Baimena ematen baziguten ere, hitzaldira  
polizia sekretu bat bidaltzen zuten, baina segituan antze-  
maten genuen. Beraz, arteaz eta halakoetaz hitz egiten has-  
ten ginen, eta poliziak lo hartzan zuen, aspertuta. Eta or-  
duan hasten ginen nahi genuenez hitz egiten».

Bitxikeriekin jarraituta, 1964an Jose Luis Zumeta, Jose  
Antonio Sistiaga eta Rafael Ruiz Balerdi protagonista izan  
zituena gogoratu behar da, Sistiagak berak dokumentalean  
azaldu zuena. Donostiako Udalak 8.000 pezetako diru la-  
guntza kendu zion elkarteari urte hartan, eta,aldi berean,

Era berean, Gaur taldearen belaunaldiaren ondoren ere  
pasatu dira elkartetik ibilbide esanguratsua izan duten ar-  
tistak, Arostegik nabarmendu duenez: «Koldobika Jaure-  
gi, Aurora Bengoetxea, Jose Manuel Abalos, Adrian Fe-  
rreño, Marta Cardenas, Hilario Bravo, eta abar. Egia da el-  
kartea zentratuagoa egon dela azken hamarkadotan  
ikastaroetan eta halakoetan. Izan ere, gure helburu nagus-  
ia da arte ederren inguruko formakuntza eta sustapena.  
Elkartea artistek lan egiteko espazio bat da, euren forma-  
kuntzarako espazio bat eta elkartzeko espazio bat».

#### Urteurrena eta beste

75. urteurrenaren bueltan, aipaturiko dokumentala ondu  
dute, eta elkartek euskal artean izandako eraginari bu-  
ruzko liburu bat prestatzen ari dira, Garcia Marcosekin el-  
karlanean. Horrez gain, zenbait jarduera berezi ere anto-



1964an, udalak 8.000 pezetako diru laguntza kendu zion Gipuzkoako Artisten Elkarteari eta diruz lagundu zituen elkartetik gertu zegoen elkarte gastronomiko bateko lanak. Protesta egiteko, prentsaurreko bat antolatu zuten Jose Luis Zumetak, Jose Antonio Sistiagak eta Rafael Ruiz Balerdik, eta ekintza poetiko gisa, txuleta bat jan zuten Sistiagak kazetarien aurrean, isilik. Ondoren, Zumetak eta Ruiz Balerdik azalpenak eman zituzten. Artze anaiek Usurbilen zuten harategi batekoa zen txuleta hori. **JAIME BASTERRETXE (ABC) / '40 AÑOS DE ARTE VASCO' LIBURUA**

**SOFIA AROSTEGI PARRA**  
GIPUZKOAKO ARTISTEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

*«Gure helburu nagusia da arte ederren inguruko formakuntza eta sustapena. Elkarteak artistek lan egiteko espazio bat da»*

latzen ari dira, Arostegik kontatu duenez: «Elkarteak hainbat urtez antolatu zuen pintura lehiaketa berreskuratu dugu abenduan, jendea margotzera animatzeko aproposa dela iruditzen zaigulako. Elkartean jasoko ditugu artelanak, eta Ernest Lluch Kultur Etxean sari bana-keta eta erakusketa egingo ditugu. Eta, hemendik aurrera, bi urtean behin jarraitu nahi dugu lehiaketa antolatzeko. Bestalde, urrian, elkarteak bazkideen erakusketa kolektibo bat egingo dugu Okendo Kultur Etxean, eta, udaberrian, Txillida Lekun marrazketa jardunaldi bat antolatuko dugu, nahiz eta oraindik ez daukagun data zehaztuta».

2025ean borobilduko dute urteurrena, Gipuzkoako beste artista elkarte batzuekin erakusketa kolektibo handi bat antolatuz. «Izan ere, Gipuzkoako Artisten Elkarteak da gurea, baina praktikan, Donostiakoa da elkartera

etortzen den jende gehiena, eta herrialde osora zabalduta nahi dugu gure jarduna», nabarmendu du presidentek.

Eguneroko jardunari dagokionez, elkarteak irekita dago egunero bazkideentzat, 09:00etatik 21:00etara, klaseak egon edo ez. Halaber, bazkideei zeramika, grabatu, marrazketa eta margoketa ikastaroak egiteko aukera sartzen zaie ordaintzen duten kuota berruan, eta baita modelo biluziak marrazteko saioak ere. Horrez gain, bazkideentzako zein bazkideak ez direnentzako irekiak diren ikastaroak antolatzen dituzte batzuetan, baina bazkideentzat merkeagoak direnak. Horrez gain, elkarteak barruan zein kanpoan erakusketak antolatzen dituzte, eta baita hilabetero Bulebarrean egiten duten arte azoka ere.

Bestalde, arte plastikoetatik harago doa elkartearen jarduna, bizpahiru hilabete behin Ostiral Poetikoak antolatzen baitituzte: «Poesia eta literatura talde bat dago elkartearen, oso indartsua, eta errezitaldiak antolatzen dituzte, baita urteroko poesia eta kontakizun laburren lehiaketa ere», kontatu du Arostegik.

Gaur egun, 229 bazkide ditu elkarteak, 134 emakume eta 95 gizon —zuzendaritzan, bost emakume eta bi gizon daude—. Hau da, gizon baino emakume gehiago daude elkartearen, eta zuzendaritzako kideek diotenez, historikoki ere emakume asko pasatu dira elkartetik. Hain zuzen ere,



Gipuzkoako Artisten Elkarteak Trinitate plazan antolatutako arte erakusketa bat, 1960ko hamarkadan. **PACO MARI/KUTXATEKA**

emakume horiei guztiei aitortza egiteko beharra mahai gaineratu du Arostegik: «Dokumentalean ez dira emakume asko ateratzen, eta, egia esan, orain pentsatu dut hurrengo urteurrenerako-edo, elkarteko emakumeen inguruko dokumental bat egin behar dugula. Izan ere, hemen dik pasatu dira emakume artista handi asko: Bitxori Sanz, Ana Maria Parra, Pilar Soberon, Sara Beiztegi, Martina Dasnoy, eta abar».

#### «Talentua badago»

Jose Luis Zumeta, Jose Antonio Sistiaga, Esther Ferrer, Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Amable Arias, Tomas Hernandez Mendizabal eta XX. mendeko halako euskal artista handiak ia edonork ezagutzen ditu, baina, segur aski, euskal artista garaikideak ez dira hain ezagunak publiko orokorrarentzat. Horren inguruan hausnartu dute bazkideek: «Talentua, egon, badago. Agian, talentu asko dago, baina ez da asko zabaltzen eta aitortzen euren lana. 1949tik aurrerako garai hartan, oso artista onak zeuden, baina ez zeuden egun bezainbeste artista, eta gehiago zabaltzen zen zeuden horien lana», nabarmendu du Morak. «Egia da, baita ere, gaur egun indibidualistagoak garela, eta ibilbide aitortua duten artistak, normalean, ez direla hona etortzen lan egitera, euren tailerlean gelditzen dire-

lako. Garai hartan, aldiz, denak etortzen ziren elkartera», gehitu du Arostegik.

Halaber, talentua egonda ere, gero eta arte gutxiago saltzen dela deitoratu dute elkarteko kideek: «Artea ez bada saltzen, arte hori egiten duen pertsonaren obra ez da aitortzen. Txillidak saldu izan ez balu, bere bizilagunek baino ez zuten ezagutuko. Eta gaur egun, artea saltzea kostatzen denarekin, zaila da aitortza lortzea», azaldu du Morak. Horrela ere, Arostegik argi dauka arteak bizi-bizirik jarraituko duela: «Merkaturik gabe, artistak ezin dira artetik bizi, baina momenturen batean buelta eman beharko zaio egoerari. Hala ere, artea ez da inoiz hilko eta beti egongo da artea egingo duen jendea, adierazpen modu bat delako. Eta, talentua dagoen bitartean, elkarteak jarraituko du izaten artisten elkargune eta sustatzaile».

**LOURDES MORA OLEA**  
GIPUZKOAKO ARTISTEN ELKARTEKO KIDEA

«Talentua, egon, badago. Agian, talentu asko dago, baina ez da asko zabaltzen eta aitortzen euren lana»